

ABORTUAZ
ESPAINAKO GOTZAI-KONFERENTZI OSOAK
APROBATUTAKO DOKUMENTOA

SARRERA

Azken gizaldi honetan jakintza eta teknika, bizitz-aspektu guzietan asko aurreratu delako, egungo gizartea ikusgarri aldatu da. Egia esateko, Gizadiak atzen ehun urte hauetan, aldaketa sakonagoak bizi izan ditu lur gainean, gainontzeko giza histori osoan baino. Horrela gertatu da, beti jakintza- eta teknika progresuari dagokion guzian, eta horrek azken eta aldiririk azkarragoak dakartzan epoka bat bizitzera eta, gidoi, esan gaiten batean gauza ezina edo geure fantasiaren mugaren murrizketan zaitzaiguna, gaur egun ume bat ere harritzen ez duen obrak ere gaitzera zaitzaiguna.

Zoritxarrez, progresu guzi hauek gertatu diren bitartean, ez da beti pertsona moral berdina hazitzen joan, eta horrela ez dira beti jakintza, tekniko, politikoen eta gizarte bizitzaren erantzun behardun guzien ahalegin eta lanak gizonari ahalegin eta lan guzi horien helburuari laguntzeko jarri.

Gauza horixe da, hain zuzen ere, gure aldiko problemarik sakonena: giza pertsonaren zentzua galdu egin dela, haren haundia ahaztu, eta gizona beren eskuko lan eta proiektuen

esklabo bihurtu dela. Horrela, giza bizitza alde askotatik mehatxatua aurkitzen da. Egoera hori ez daiteke Jainko asmoaren erantzun izan. Hura gizonaren Egile eta helburu baita eta hark dena zeru-bizitzara deitutako gizonaren onerako jarri bai du. Egia da gure gizarteak ez duela Jainkoa asko gogoan hartzen. Baina, Jainkoa ahaztu eta gizona aintzat ez hartuaren artean oso katebegi estua dago, guk seinalatu beharra daukaguna.

Horrela, adibidez, ikusten gaude hatsekabez, ze gorabehera mingarriek dirauten herri bata-bestearen artean, nola nonahi sortzen diren gudak eta sesioak lur gainean eta nola giza pertsonaren eskubideak hausten eta zapaltzen diren bazter guzietan, exzepziorik gabe, toki batzuetan eraso hauek gogorrago gertatzen badira ere eta besteetan itxuraz zibilduago eta hala, basatiari hipokresia erasten bazaio ere.

Espain-gizartea, unibertsu-fenomeno honen barruan, ez da exzepzio bat. Azken hogeitama eta hogeitamar urte hauetan bizimaila nabari hobetu den bitartean, eta azken urteetan gure herriak, oinarritzko giza eskubideak hobeto defenditzeko eta zaintzeko, supra-nazio erakundeekin elkartu eta nazio arteko tratatu eta konbenioak suskriptu dituenen, bizitzak zera erakusten digu, alde batetik behartsu eta margenduen izaro sumingarriek iraun egiten dutela, eta, bestetik, giza pertsonaren haundiari zor zaizkion beharrezko eskubideak ez direla behar bezala aintzat hartzen, ez gure egungo bizitzan, ez eta gure legislazioan ere.

Dударik gabe, gizonaren haundi mehatxatua zaintzeko, gauza on asko egin dela aitortu behar dugu (heriotz-zigorra ezabatu, tortura eta kaptibu-lanak kendu, inguruak ondo zaintzeko ardura biztu edo norberaren eta sendi bizitzaren barne bizitza babesteko -informatikaren intromisioetatik adibidez- konstituzio-agindua eman), baina, hala ere, guziz urduri eta oso kezkatu zera ikusten dugu, logro hauen tartean pertsonaren eta haren oinarri-eskubideen aurkako beste eraso batzuk hazitzen direla gure

gizartean. Berezi, ez da bizitzeko eskubidea zaintzen, eta are nabar-nabari eraso egiten zaio bai gure gizarteko sektore haundien joeragatik bai eta Espainan indar dagoen legiazioagatik ere. Ulertu ezina izango litzateke gauza hau, gaurko gizartean hedonismuak ze indar haundia duen kontuan hartuko ez bagenu. Bere aspirazio guziak mundu honetako ondasunetan jartzen bai ditu, gizona beste mundurako ere egina dagoela ahazturik, eta are elkarren errespetuan bizitzeko diotezen prinzipioak bazterturik.

Bizitzaren Defentsarako Gotzai-Komiteak, okerrak zuzentzeko, eta, gure gizarteko sektore batzuek, bai eta sektore gidariek ere, hartutako bide arrisku hau uzteko oraindik ere garairik badela dakielako, argitalpen honekin, texto erraz, didaktiko eta klaro batzuk argiratzen hasi nahi du giza bizitzaren (abortuaren, fekundazio lagunduaren, eutanasiaren, ekologiaren eta abar...) balioa adierazteko, eta zera uste dugu, ez kristau sinisdunen onerako bakarrik, baina bai eta herriko gende guzien, legisladore eta agintzaileen ere onerako izan daitezkeela, dena dela haiek zer uste eta sinisten duten. Abortu probokatuaren legiazioak guziz oker errugabeen heriotza bertan behera uzten duela, eta heriotz horien arrazoi nagusienak, norberaren bizi lasaia, ezjakina, bakardadea eta kuestio horren berri ez izatea dela ziur uste dugulako, Komite honek gogo oneko gizon eta emakume guzietan reflexiora deitzen die, eta horretarako gure begien aurrean zer gertatzen den hobeto galde dezatela. Katolikuok egoera ezin hobean gaude abortu problemaren izaera ulertu ahal izateko. Gure fedeak gizonaren haundia eta duina osoago ikusteko bide ematen digu eta hori guzien aurrean aitortzera eragiten; giza bizia Jainkoaren emaita da, Jesukristok -Bideak, Egiak eta Biziak- ere erakutsi digun bezala.

I

ABORTUA

ETA BIZI-HASIERA

1 Zer da abortua?

Medizinak abortua zera dela ulertzen du, umekia (fetua) sabeletik at bizi ez daitekeela, hau da, handik at bizitzeko batere gauza ez dela, sabeletik umekiaren berezko edo nahitako expulzioa. Umekiaren expulzio horri, sabelaldia bukatu baino lehen, baina bizi daitekeela gertatzen bada, goiz-erditze deritzaio, bai umekia bizi bada, bai hil bada.

Espain Legeak bai eta Kanon Legeak ere, abortua zera dela kontsideratzen du, amaren sabelarekin lotua dagoen bitartean, umekia apurtu bidez hiltzea edo sabeletik aldearenez expulsiatzea hil dadin, nahiz bizitzeko gauza izan nahiz ez izan.

Hizkera arruntean abortua zera da, bai berezko bai nahitako expulsiogatik umekiaren heriotza, edozein sabel barne bizitz unean gertatzen dela hori.

2 Zenbat abortu mota dira?

Abortua berezkoa eta nahitakoa izan daiteke. Berezko abortua haatik gertatzen da, umekia sabel barnean hiltzen delako edo zeredozerk umekia kanpora expulsiatzen duelako, ondoren han, amaren sabeletik at bizitzeko gauza ez denez gero, hiltzeko. Nahitako abortua, amaren sabelean umekia norbaitek hiltzen duelako egiten da, edo nolabaitere kanpora irtetzera behartzen dutelako, kanpoan hil dadin.

Batzutan bizi daitekeen umeki gainean aktuatzen da, eta, hala, amaren barruan hiltzen dute, edo, bizirik jaio ondoren, bura hiltzeko bideak hartzen dituzte. Hau ez da, mediko hitzeginez, abortu, eta, hala, legislazio askok, abortua uzten lasai samarrak direla epaituek, expreso debekatzen dute, haur

hiltzearen figuran sartzen bai dute. Baina, ez da beste zenbait lekutan -Espainan esate baterako- horrela gertatzen, Espainako Penal Kodigoak ez bai du bizi daitekeen hori kontuan hartzen abortua izan denez epaitzeko, eta horregatik, kasu batzutan, abortu gaiaz indar dagoen legislazioari esker hain zuzen ere, bizi daitezkeen umekiak hil ditzakete, penal zigorrik batere jasan gabe. Horregatik orrialde hauetan, abortua, hizkera arruntean mugatu bezala erabiliko dugu, eta, hala, abortutzat, bizi daitekeen umekiaren nahitako heriotza hartzen dugu.

3 Giza izaki bat ote da sortu dena bere lehen hazi aldietan?

Espermatozoide bat obuloarekin batu bidez fekundazioa gertatu denean, gizaki berria sortzen da, orain arte izan diren, orain diren eta izango diren ez bezalakoa. Une horretan bizi-bide berria hasten da, osoro berria, eta espermatozoide eta obuloaren biziaz bestelakoa, bere buruaren jabe bizitzeko itxaropen duena. Lehen une horretatik, izaki berriaren bizitzak errespetua eta babesa merezi du, gizona hazi etengabe egiten baita, zein-aldarik egin gabe, baina gero eta gehiago nor izaten bai doa. Jaio ez dena eta jaio dena heuren artean berezteko saioek, haien giza izaerari begira, ez dute oinarririk batere.

4 Orduan ez da egia hasieran biologi- gauza besterik ez dela, eta geroago bakarrik helduko dela giza izatera?

Ez. Fekundatzean gene-ondare berria osatzen denetik gizon da, eta hark hazi besterik ez du egin behar haundi bihurtzeko. Fekundatu ondoren, giza espezieko indibiduo berri hori etengabe desarrollatzen doa, baina desarrollo horretan ez da behin ere zein-aldarik gertatzen, lehenago gizon ez zela, eta gero bai dela esateko. Zein-aldia hori fekunda-unean bakarrik gertatzen da, eta harrezkero gizon berriak, bere amarekin batera aktuatzen duela, kanpoko faktore batzuk bakarrik: oxigenua, janaria eta denbora behar ditu haundi egiteko. Gainontzekoa hasieratik berarengan dago.

5 Nola izan daiteke, horren txikia den bitartean, kanpoz giza antzik batere ez duena, gizon?

Egia ez da gure sentsuek nabaritzen dutena bakarrik. Elektromikroskopia eta -teleskopia berriek, duarik gabe, gure sentsuek sekula nabaritutako ez zituzten unibertsu aldeak eskaini dizkigute. Horrelaxe, jakintzak guziz ziur zera irargitzen du, gizaki sortu berria, geroago haur, ume, gazte, heldu eta zahar egingo dena bera dela, eta ez bestea. Haren itxura desarrollo aldiaren arauera aldatu egiten da. Eta, hala, sabel barneko bizieran, lehenbizi inplantatu-aurreko-enbrio da (fekunda-unetik 12-14 egunera, bere kabia egin arte; aldi honetan obulo fekundatu batetik bizkiak sor daitezke); gero bere organo guztiak formatu arte enbrio da; gero, hauek heltzen doazen bitartean, haur jaiotzen den bezala formatu arte, umeki. Eta ondoren etengabe hazitzen eta heltzen joaten da, eta gero gain-behera hil arte.

Haundia umetik ez datorren bezala, baina lehen ume izan zela, horrelaxe umea umekitik *datorrela* esateak ez du zentzurik, baina *hura bera lehen* umeki izan zela, eta beti hasieratik gizaki bera da. Eta haurra, haundiaren itxura gabe delako, ez dela gizon onpostea zentzurik ez lukeen bezala, sortu berritako semea ere, haur itxura gabe delako, ez dela gizon defenditzeak zentzurik ez luke.

6 Fekundazio-unetik bizi berria dela onartzen badugu, ez al litzateke landare- edo abere-bizitza izango, geroago gizon izatera iristeko?

Ez. Gaur egun gene-jakintzari esker, izaki bakoitza hasieratik den hura baizik ez dela esan dezakegu. Landare-gametoak batzetik landarea baizik ez da sortzen; arrazoi gabeko abere-gametoetatik (tximinutik esate baterako) beste tximinua baizik ez da sortzen, eta giza-gametoetatik giza espezieko izaki berria sortzen da, hasieratik izaera hori duena, horrela mugatzen bai du bere giza-gene-ondare bereziak.

7 Inoiz ere uste izan al da emakumeak sortutako frutua giza-indibiduo bat izan ez daitekeenik?

Bai, aspaldi, batzutan gene-mekanismuak ezagutzen ez zirelako zera uste izan zen, gizonak fekundatutako emakumeak giza ez zen edo erdigiza zen indibiduo bat sor zezakeela. Idea honek zera agertzen du, superstizioa eta gizonaren ezjakina, gaur oso superatua dagoena. Beste gauza da, gaitzak eta mutazio batzuk etortzean, fekunda-unean trastorno batzuk sortu daitezkeela, eta gero trastorno horiek ohiezlako aleak ekarri, «maskuri-mole» edo «abortu-arrautz» esaten zaienak adibidez, gero hazitzeko gauza izango ez direnak. Edo, beste batzutan, geneetatik bertatik gaizki formatuak etorriko dira, baina hala ere, haien bizitari normal hazitakoei zor zaien errespetu eta babes bera zaio zor.

8 Eta fekundazioak dakarren frutu hori giza-bizia bada ere, ez al liteke gerta, geroago bakarrik iristen dela giza indibiduo izatera?

Munduan giza-indibiduorik baizik ez da. Giza bizitzaren idea abstrakzio bat da, eta abstrakzio hori giza-espezieko indibiduoetan bakarrik egiten da hezur eta mami. Giza bizitza general hartzen badugu, idea abstraktua da; giza bizitz konkretua, ez da, ez daiteke munduan, giza izakia baizik izan.

9 Baina, fekunda-unetik hamalaugarren egunerarte, obulo fekundatutik, ez giza-izaki bat bakarrik, baina bi (zigote bakarreko bixkiak) sortu daitezkeenez gero, ez al litzateke esan beharko, dibisio hori gerta daitekeen bitartean, ez dela giza indibiduorik ama-sabel barruan?

Obulo fekundatu bakarretik bi giza-izaki izatera heldu badaitezke ere, ez du horrek esan nahi, dibisio aurretik ez dela bat ere, baina bat zegoen tokian -oraindik ondo ezagutzen ez dugun prozesuagatik- bat baino gehiago izatera heltzen dela.

Zera eduki behar da kontuan, ez dela gauza bera indibiduo izate, eta zatiezina izate, indibiduo izan arren, zati-ahal (dibisibile) izan bai daiteke. Hori gertatzen da bakteria eta beste mikroorganismo batzuekin. Bere biologi-eboluzioko epoka konkretu batean izaki bizi bat zati daitekeena izateak, ez du ezabatzen aurreko unetan indibiduo bakarra izatea. Giza izakia, lehenago esan bezala, gutxi gora-behera bere eboluzioko 12-14 egunerate indibiduo bat da, baina zati daitekeena, eta kabia egin ondoren bakarra eta zatiezina.

10 Fekunda-unetik giza izaki baldin bada, zergatik erabiltzen dituzte jakintsuek izen ezberdinak hazitzen doanaren ginoan hari zigoto, morula, blastokisto, enbrioi, umeki deitzeko?

Giza izaki baten bizitza, bi gametotik -bata arra bestea emetik- abiatzen denean beste gauza bat sortzen denean hasten den prozesu luzea da. Gero, giza izaki berriak, fekundaziotik sortuak, bere hazierako aldi bati besteen arauera, orain izen bati, gero bestea hartzen du: *zigota*, zelula arra eta emea batzetik sortzen den lehen zelula da. Lehen zelula-dibisio batzuen ondoren, giza izaki honek *morula* hartzen du izen; morula honetan laister azalduko da diferentzi bat, enbrioia osatuko duten zelulen -guk aldeurreko enbrioi, eta, beste batzuek, preenbrioi deitzen dioten zelulen- eta plazenta osatuko duten zelulen artean. Fase berri honetan giza izakiak *blastokisto* deritza, eta bere amaren sabel-horman egingo du kabi. Gero bere organoak bereizten joango dira, batzuk besteak baino lehenago *enbrioi* aldi osoan, plazenta osoro desarrollatzen den bitartean. Enbrioiak orduan *umeki* izena hartuko du, eta hazitzen joango da, bere organuak beren eginbeharra betetzeko heltzen doazen bitartean, eta ordua iristean, jaio egingo da, eta jaioberri, sortuberri deituko zaio. Eta prozesu bakar honek, guziz bigun gertatu denak, batbateko aldarik gabe, jaio ondoren aurrera jarraitzen du, eta jaioberria ume egiten da, umea mutiko (edo neskato), mutikoa gizaseme, gizasemea heldu eta heldua agure. Izen guziok hartzen dituzte

izaki bakar baten bizialdick; izaki hori fekundaziotik sortu zen, eta beti bera izango da hil arte, haren aldi bata eta bestean haren itxura oso ezberdina bada ere.

11 Ezin ulertu al liteke, bizitzeko gai egin arte, hau da, amaren sabeletik bizitzeko gauza izan arte, semeak bizitzeko bere amaren beharra daukalako, ez dela giza izaki bat?

Ez. Bere bizitz-aldi batean semeak bizitzeko amaren sabel-
giroa behar izateak, ez du esan nahi amaren zati bat denik.
Fekunda-unetik bere gene-ondarea du, bere amarena ez
bezalakoa, eta bere immunologi-sistema, bere amarena ere ez
bezalakoa, eta umeak harekin astronautak ontziarekin dituen
antzeko har-emanak ditu: handik aterako balitz, hil egingo
litzateke, baina ez barnuan dagoelako da ontzi-zati.

«Semeak
bizitzeko,
amaren
sabela
behar
izateak
ez du
esan
nahi
amaren
zati bat
denik»

Bestalde bizigai dela esaten den hori (hau da, sabelaldia
behar baino lehen bukatu ondoren, sabeletik at probabile biziko
dena), zenbat eta denbora gehiago duen haurrak sabelean,
orduak eta egiagoa gertatzen da, baina oso zaila da aldi hori
erabakitzen. semeak bizitzen jarraituko badu asko eta asko
kanpoko faktoreengatik: nola jaio den, ze mediku-atentzio
hartzten duen, jaiotza sortzen den lekuan laguntza asko ala gutxi
dagoen eta toki haren teknika-egoeragatik, etab. izango baita.
Gainera, jakintza aurreratzen doan ginoan umeki bat bizigai dela
esateko, gero eta denbora gutxiago behar da. Horregatik bizigai
izatera heltze hori -oinez ibiltzen edo hitzegiten ikasi, edo
ezaguerara iritsi bezala- giza izaki bati gertatzen zaizkion gauzak
dira, baina ez dira batere umeki hori gizon bihurtzeko une. Ez du
zentzurik giza izaera teknologi-desarrolloari lotzeak.

Gainontzean, amaren sabeletik at bizitzeko gauza izateak ez
du inola ere giza bizia noiz hasten den erabaki behar. jaio berria
ere ez baita batere berez bizitzeko gauza, norbaitek egoki zaintzen
ez badu. Jaiotzean oxigenua hartzeko modua aldatu egiten da,

bai eta jana hartzeko modua ere, baina gainontzean amaren sabel barruan hasitako biziak bere bidea egiten jarraitzen du.

12 Hala ere, norbaitek duda egingo balu ze unetan sortzen den giza izaki berria, zer egin behar du?

Norbaitek giza izaki berria une konkretu batean giza izaten hasi den ala ez dudatuko balu, ez dauka haren hazibidea moztutzerik edo ez dauka gizonari ez dagokion traturik ematerik, duda horren aurrean zera pentsatu behar bai dugu, hura giza izaki bat izan daitekeela; horrelaxe gertatzen da ere, gizona hila dagoen ala ez duda sortzen denean, giza biziari zor zaion errespetua ematera behartzen gaituzte, hura hil dela ziur jakin arte. Eta hain altu baloratzen du gizarteak giza bizia zaintzea, trasplante baterako organo bat extirpatzeko ez da nahikoa organo emailea probabile hil dela jakitea, baina haren heriotza diagnosteko jakintza-kriterio zorrotzak exigitzen dira.

Hori horrela dela, honetan ikus daiteke, etxe bat erortzean sortzen den egoera larrian edo, meaztegi bat hunditzean, meatzari batzuk hobi barruan atera ezinik gelditzen direnean. Zaborrak kentzeko eta gizonak ateratzeko lanak inor ere bizirik ez dagoela ziur jakin arte jarraitzen du, eta ez dira sekula lan horiek uzten denak probabile hilak egongo direla susmatzen delako bakarrik.

13 Bere sabel barne bizitzako zein unetan desarrollatzen ditu jaio gabeko semeak bere organo eta funtzioak?

- Bi astebetara nerbio-sistema desarrollatzen hasten da.
- Bizi denetik hiru astebetara zerebrua bereizten hasten da, hanka eta beso izango diren kinu batzuk agertzen dira, eta bihotza taupaka hasten da.
- Lau astebetara dagoeneko begiak sortzen hasten dira.
- Sei astebetara buruak ia bere azken itxura hartu du, zerebrua oso desarrollatua dago, esku-hankak itxura hartzen hasten dira,

eta oso laister behatz-atzak agertuko dira, bere bizi guzian edukiko dituenak.

- Zortzi astebetera urdailak bere gaster-sekrezioa hasten du; hatz-azalak agertzen dira.
- Bederatzi astebetera nerbio-sistema hobe funtzitzen hasten da: estimuloen aurrean reaktu eta gustoak nabari egiten ditu, zera konprobatu baita, amnio-likidua (han bizi da igeri ama-sabel barruan) gozaten bada, gehiago hartzen duela, eta, alderantzira, gazitzen edo mintzen bada, ez duela hartu nahi.

Hamaika astebetera behatza xurgatzen du; hori ekografia batean oso ondo ikus daiteke.

- Hamabigarren astea bukatzerako organo gehienak osatuak daude eta ia denek funtzituko dute sabel barneko bizitz erdi aldera. Baina, aldaera batzuk jaio ondoren bakarrik gertatuko dira: hortzak lehenengo aldiz, jaio eta handik sei hilabetera bakarrik irtengo zaizkio, biziko hortzak zazpi urtebete ingurura, eta hatzutan, azkeneko aginak, oso sasoiari sartu ondoren. Pubert-aldia, bere anatomi- eta fisiologi-kanbio guzietan, hamar urtetik hogeitun urte bitartean gertatzen da, eta emakumea ume ekartzeko gai, pubert-aldiaren ondoan segitun hasten da izaten eta klimaterioan gelditzen da. Hala, bizia prozesu bat bakarra da, fekunda-unean hasi eta gero, bere eboluzio eta inboluzio aldiekin, heriotz arte gelditzen ez dena.

14 Orduan, non hartzen dute oin, oraindik ere seme jaio gabea amaren gorputz zati bat dela, eta, semearen geroaz, amak bakarrik erabaki dezakeela defenditzen dutenek?

Honela argutzen dutenek ez dute horretarako oinarririk batere. Bizirik argi eta garbi irargitzen du, semea bere amaz guztiz bestea dela, autonomo doala desarrollatzen eta berez reaktzen duela, bere amagandik zintzilik badago ere oraindik alde handian. Baina amagandik zintzilik jarraitzen du denbora askoan jaio ondoren ere. Ez eta haurraren plazenta ere, ez da amaren

gorputz zati bat, ez eta zilbor-estea edo amnio-likidua ere; aitzitik, organo hauek semeak sortu ditu bere zigoto-alditik, bere lehen desarrollo aldietarako beharrezkoak dituelako, eta, jaiotzean, utzi egiten ditu, jaio ondoren urte batzuk geroago esne-hortzak utziko dituen bezala, hazitzen jarraitzeko laguntzen ez diotelako. Horregatik, semea amaren gorputz zati bat dela dioenak, onenean ere, gauza horretan guziz ezjakina dela agertzen du.

II

NOLA EGITEN DA ABORTU?

15 Abortua egiteko ze metodo erabili ohi dira?

Abortu probokatuak amaren sabelean hazitzen doan semea galdu egin nahi du edo handik behar baino lehen expulatsu, hil dadin. Helburu hori iristeko metodo bat baino gehiago erabili ohi da, beste aldietan ginekologian edo emagintzan normal erabili ohi direnak, eta metodo horiek aukeratzeko, eskuartean ze bide diren eta bizia kendu behar zaion umekiak ze denbora duen hari begiratzen zaio. Metodo erabilienak hauek dira: aspirazioa, legratua, sabel-ebakia («minizesarea»), kontrakzioei eragina eta amnio barneko iniektzioa.

16 Ez al dira ere abortu-piidora batzuk?

Askotan erabili nahi izan badira ere sendagai itxuradun bideak abortu egiteko, orain arte «abortu pildora» deritzanak bakarrik iritxi du egiaz zeredozer (RU-486). Haurdun gelditu eta segituan, semearen biziaren seigarren astebetea baino lehen, hau da, amaren arauaren bigarren hutsa sortu baino lehen, hartzen bada, zera iritsi nahi da, hormona-sustantzi honek, osatzen doan plazentaren funtzioa ezabatu dezala, eta horrela semea hil egiten da, une horretan plazentaren janaritzeko funtzioa oso

beharrezkoa duen enbrioi baita, eta orduan bere inguruko azal guziekin expulstatu egiten dute. Iritsi nahi zen guzia lortzen ez bada, legratu bat erabili behar da abortua bukatzeko.

17 Nola egiten da abortu aspiratu bidez?

Lehenbizi umetoki-lepoa, handik tubo bat, indar haundiko aspiradore bati erantsia sartu ahal izateko, zabaldu egiten da funtzio horretarako gailu egoki batekin. Xurgatzeko indarrak enbrioi eta umetokian dagoen guzia erakarri egiten du, dena zati-zati egina. Behin xurgatzeko lan hori bukatu ondoren, legratu egin ohi da, umetokia huts-hutsa gelditu dela seguru egoteko. Metodo hau, enbarazuak hamar edo hamabi aste baino gutxiago dituenean, erabili ohi da.

18 Legratzeko metodologia zer da?

Legratzeko edo raspatzeko metodologia («curetaje») erabili ohi da gehienbat. Hasieran umetoki-lepoa egoki zabaldu egin behar da; hori anestesipean bakarrik egin daiteke. Gero umetokian aho zorrotzeko kuxara txiki baten antzeko zerbait sartzen da; tresna txiki honek legra edo «cureta» du izena, eta, umetokian goitik behera pasatzean, ondo txikitzen ditu bai plazenta eta bai semea ere. Eta horrela egindako zati edo puskak legra berarekin ateratzen dira. Metodo hau, batez ere, semearen biziaren lehenengo hiru edo lau hilabete barruan egin ohi da. Enbarazuak hamabi astebeteak igaro baditu, eragozpenak haunditu egiten dira eta oso ondo txikitu behar da umekiaren gorputza kanpora ateratzeko. Batzutan kondar haundiak geldi daitezke umetoki barruan, burua adibidez, eta horregatik abortzaileak ardura-arduraz aztertu behar ditu ateratako kondar guziak, amaren sabel barruan ezertxo ere gelditu ez dela aseguratzeko.

19 Zergatik erabiltzen dira metodo hauek enbarazuko lehen hilabeteetan bakarrik?

Semea oso azkar baj doa haundi egiten eta hazitzen, eta aldi hori igaro ondoren, hura txikitzea eta bagina bide kanpora

jaurtitzea, bai abortu egilearentzat bai amarentzat oso arrisku haundikoa da.

20 Zer da «minizesarea», hau da: kaisar-ebakuntza-txiki, deritzan abortu-metodua?

Kesarea enbarazu azkenean egiten den operazio bat da, eta zera da, amaren sabelean ebaki bat eginez handik semea ateratzen da, bere ohiko bidetik jaio ezin denean, dena dela horretarako arrazoi. Operazio honek bai amen bai semeen bizitz asko salbatu ditu. Kesareak, enbarazuak oraindik ere astebete gutxi batzuk igaro dituzenean, «minikesarea» deritza, eta hau da, amaren sabeletik harrena umetokian ebaki bat egiten da, handik semea eta plazenta ateratzeko. Metodo hau enbarazuaren hamabost edo hamaseigarren astebetetik aurrera egin ohi da. Semeak bizirik atera ohi dira, eta handik gutxira, bizitzeko gai ez direlako, hil egiten dira. Baina, batzutan, metodu honen bidez, bizitzeko gai diren umeak ateratzen dira, eta orduan hiltzen uzten zaie, bizirik iraun ahal izateko erremeioak haiei eskuratu gabe, edo gehienbat ito bidez hil erazi egiten zaie.

21 Ze abortu-metodu da kontrakzioei eragin bidez egiten dena?

Lehenbizi amari zenbait bidez sustantzi batzuk (prostaglandina, oxitocina) ematen zaizkio, erditzean gertatzen diren bezalako kontrakzioak sortzen dizkietenak; kontrakzio hauek umetoki-lepoa zabaldu egiten dute, eta semea dagoen boltsa umetokiaren hormetatik separatu egiten da, eta gero umekia eta plazenta kanpora botatzen dira. Umea hila jaio daiteke, ama barruan ito egiten baita, edo bizirik ere bai. Batzutan, oxitozidoak erabili baino lehen, umetoki-lepoan tailo edo dilatadore hidrofilo batzuk jarri ohi dira, eta hauek puztutzean zabaldu egiten dute lepoa.

22 Ze abortzeko metodu da amnio barruko iniekzioa?

Semea amnio likiduan bizi da eta han, ama-sabela zulatu

bidez, gatz-soluzio hipertoniko bat edo urea-soluzio bat iniektzen da. Oso soluzio erregarri eraginkor hauek, erditzean bezalako kontrakzioak sortzen dituzte, eta iniektu ondoren egun batera edo bira, semea eta plazenta atera botatzen dira. Zenbait alditan, gero legratu egin behar da, plazenta atera expulsatu dela aseguratzeko.

Metodo hau batzutan berez hildako umekia eta umetoki barruan gelditu dena, kanpora ateratzeko erabili ohi da, eta enbarazu aurreratuan bakarrik enplea daiteke. Abortua probokatu nahi bada, hau da, ama barruan semea bizirik baldin bada go eta garbitu egin behar bada, enbarazuak ere denbora ez gutxi eduki behar du, lau hilabete baino gehiago.

Alde aurrez iniekturiko soluzio erregarriak umekia pozoindu egiten du, eta gainera umearen alde asko erre egiten du. Batzutan, erre-soluzioen lekuan, amnio likiduan prostaglandinak sartu ohi dira; baina abortarazi nahi dutenek beste soluzioak nahiago dituzte, umekiak seguruago hiltzen bai dira, eta inpresio txarra egiten du, semea bizirik jaio ondoren hura hil edo denen aurrean hari hiltzen utzi beharrak.

23 Amaren bizari edo osasunari begira, esan al daiteke metodu hauek seguruak direnik?

Ez. «Seguru» hitza ez da batere egokia situazio hauetarako. Aspiratu bidez abortzen denean infekzio-arriskuak daude eta are umetokia zulatzeko arriskua, eta odol galtzearekin batera amaren sabel-organo batzuk zauritzeko ere arriskua. Arrisku hau legratu bidez abortzen denean haundiagoa izaten da. Kontrakzioei eragin bidezko abortuan, eragozpenik haundienak hemorragiak eta enboliak dira, eta «minikesareetan» ebaki berria urratzeko arriskua eta gainerako infekzioak. Amnio barruko iniekzioetan sustantzi toxikoak amaren odol-bide sistemara igaro daitezke.

Egia da konplikazio hauek ez direla oso sarri gertatzen eta ez dela ama asko hiltzen (konplikaziorik eta heriotzik falta ez bada ere), baina manipulazio hauek garrantziko ondoreak etorri ohi dira, eta geroko semeen enbarazuak serio ikutu ditzakete.

Aitatu beharra dago hemen ere psike-alda arrisku haundiak, askotan geroago bakarrik agertuko direnak. Abortuak amarentzat oso psike-trauma gogorra supositzen du, abortuak berak nahi duela ez badira ere.

Labur esateko, abortuzko erabakiaren arriskuak oso handiak dira, abortu «segururik». Hitzegiteko modu bat besterik ez da, beste metodoak oraindik ere arriskuagoak bai dira.

24 Bai al dira, beraz, beste metodo zakarrago eta arriskuagoak amarentzat, isileko abortuetan erabiltzen direnak?

Aspaldidanik dakigu, orain dela milaka urte, abortuak probokatzen zituztela, amarentzat oso arriskutsuak. Gaur egun ere etxa-metoduak erabiltzen dira isileko abortuetan.

25 Ez al litzateke, orduan, hobe abortua legetuko balitz, isileko abortu horien arriskua saihesteko, edo emakume pobrea aberatsa baino egoera txarragoan ez aurkitzeko, hau atzerrira joan bai daiteke abortutzero?

Lehenbizi zera jakin behar da, abortuzko lege errazak dauden herrialdeetan, isileko abortuak beldirela, eta hori ulertzeko amaia arrazoi badagoela (ezkontza lohitu eta nahi ezako ondoreak sortu direla, sozial-egoera bati eusteko enbarazua estali egin behar dela, edo beste asko eta asko). Nolanahi ere, abortua inguratzen duten kanpo faktoreek, ez semearen bizia bakarrik, baina amarena ere arriskuan jartzen dutelako, zikinago eta ankeragoa egin dezakete abortua. Baina, abortua, dela emakume aberatsaren edo pobrearen, isilean edo Estatu-babesean egiten dela, tresnarik gabe edo oso teknologi sofistikatu lagun, beti

bere burua zaindu ez dezakeen errugabeari bizia kentzea da, krimen bat, eta akzio txar hau ez dago inoiz ere zuzen esterik.

III

ABORTUAZ LEGEAK

26 Nola regulatu ohi da abortua herrien lege-arauetan?

Antzinako Grezia et Erroman abortua, haur erailtza bezalaxe, gehienbat utzi egiten zuten eta sozial onartua zegoen. Kristauari esker Legea gizaberratu zenean, abortua beti krimen bat bezala zigortu da. XX. gizaldian zenbait alda gertatu da situazio honetan: Soviet Uniok 1920.an utzi egin zuen abortua, eta hortik 1930-1940 aldian Eskandinaviako herri batzuek ere berdin egin zuten, eta gero Europa Ekialdeko, Soviet mendeko, herri batzuek ere bai, bai eta Japonetik ere. 1960tik aurrera, etzaldeko munduan, abortu probokatua (zenbait herritan restriktzio gehiago edo gutxiago jartzen zela) uzten joan dira; alabaina herri askok jaiotze gabearen bizia babesten eta aintzat hartzen jarraitzen du.

27 Espainan nola dago kuestio hau?

Espainan abortua Penal Kodigoan 1985. urte arte zigortutako deliktu izan da; orduan, Kodigo-Reforma batek, herrian abortu-lege («ley del aborto») deitu zitzaionak, zera erabaki zuen, supostu batzuetan, zirkunstantzi jakin batzuk batean gertatzen zirelako, abortua ez zela zigortuko.

28 Zer esan nahi du hemendik aurrera Espainan abortua deliktu ez den horrek?

Ez. Abortua Espainan Penal Kodigoan, VIII. Tituloan («delitos contra las personas», III. Atalean, 411-417bis artikuluetan, regulatutako deliktua da. Prezeptu hauetan, abortzen dutenei emango zaizkien zigorrak erabakitzen dira, Kodigoko beste aldeetan, asesinatzen, bortxatzen edo ostutzen dutenei eman behar zaizkien zigorrak erabakitzen diren bezala.

29 Orduan «abortu-legeak» ze berri ekarri zuen?

Legislazio berriak, zera supositzen du, abortu probokatua deliktu bada ere, legislazio honek ikusten dituen zirkunstantzi eta kondizio behan egiten bada, egiten duena eta bere gorputzean abortua egiten uzten duena ere ez dutela zigorkatuko.

30 Ze zirkunstantzi dira horiek?

Hiru kerakoak dira: batzuk, amari doazkionak: abortzeko baimena eman behar duela; enbarazutik haren biziarentzat edo haren gorputz edo psikearen onarentzat arrisku handia etorri behar lukeela, edo, enbarazua, bortxatu dutelako gertatu dela. Beste batzuk semeari doazkionak: gorputz edo psike akats handiekin jaioko dela uste izan behar dela. Beste batzuk, azkenik, abortu-akzioari berari doazkionak: aitaturiko zirkunstantzi behan egiten denean, horretarako baimena duen zentro batean egin behar dela; mediku batek edo haren direktzio behan egin behar dela; kasu batzuetan, abortua akontsejatzen duen mediku-diktamen bat baino gehiago behar dela, eta hau, bortxatua izan den kasuan edo semea akatsduna izango dela uste denean, ez dadila epe jakin batzuek baino geroago egin.

31 Ze arrazoi eman da, kaso batzuetan abortua ez zigorkatzeko?

Legislazio batzuetan oinarri honetatik abiatzen dira, seme sortu eta jaiotze gabeak ez duela lege-babesik merezi sabel barruan denbora jakin batean bizi arte, eta epe horrez gero hasten dira babesa merezi duela kontsideratzen. Kriterio honen arauera, abortua enbarazu-epe jakin barruan legezkoa da. Sistema honi «epe-sistema» deritzaio.

Beste legislazioetan, Espainakoan adibidez, semeak bere bizi hasieratik babesa merezi duela kontsideratzen da, baina erabakitako zirkunstantzi batzuetan nahitako abortua ez da zigorkatu behar. Sistema hau «seinale-sistema» bezala ezagutzen da, eta mixtua izan ohi da; seinale bakoitzari enbarazu-epa dagokio, eta epe berru hortan abortu probokatua ez daiteke zigortu.

32 Seinale-sistema epe-sistema baino estuagoa al da?

Bai. Seinale-sisteman Legeak jaio gabearen biziak babestea merezi duela kontsideratzen bai du, alde bateko eta besteko onen artean ze erabaki hartu behar den Estaduak alde aurrez juzgatzen ez duelako, abortzen duena ez dela penal zigorkatu behar uste badu ere. Aitzitik, epe-sisteman, jaio gabeari bizia amak berez nolanahi kendu lezaioke, Estaduak ez bai du zer ikusirik jaio gabe horrekin eta ez dio babesik batere eskaintzen.

33 Espainako legislazioak explikatzen al du nolabait ere zergatik jartzen diren seinale batzuk, abortua zigorkatu ahal ez izateko?

Gehienbat, abortu probokatua errazteko legeak onartzen eta promotzen dituztenek, errazteko legislazio hori justifikatzeko arrazoi hauek ekartzen dituzte, muga-kasuetan ez dagoela ama atsekabetuei heroe-kondukta eskatzerik, hori penal-arauaren funtzioa ez delako.

34 Eta ez al da egiaz horrela?

Ez. Edozein penal-legislaziok, general, zera erabakitzen du, «muga kasuetan», norbait deliktu bat (edozein deliktu, ez abortua bakarrik) fisiko eta psikiko egitera behartua aurkitzen denean, egileak ez duela penal erantzun beharrik. Espainan ere erantzun behar gabe gelditzen da «estado de necesidad» behar-egoera deritzan kasuan, eta juezak kasu hori gertatzen dela juzgatzen badu, deliktu egin duena absolutu egiten du. Honek zera esan nahi du, ez zela abortu probokatuan legislazio berezirik batere behar «muga-kasuak» solutzeko, ez bai dute espain-juez-historian inoiz inor kondenatu, delako behar-egoera horren zirkunstantzia ekartzen zenean.

Muga kasuak solutu nahi baziren, Penal Kodiguaren reformak, ez bakarrik ez du ez zen hutsunea bete, baina gizarteari impresio oker hau sartu dio, kondizio jakin batzuetan, nahiz muga-kasua izan nahiz ez, abortu egitea ez dela deliktu.

35 Eta ez al da, azkenean, gauza bera, erantzun behar gabe utzi eta abortu batzuk ez zigorkatzekoak deklaratu?

Ez. Lehenengo kasuan, juezek behar-egoerako legeausleari konprensio haundiena agertzen badiote ere, Legeak gizarteari abortua deliktu den mezua transmititzen bai dio; eta bigarrenean, beste hau transmititzen da, forma-rekisitu batzuk betetzea nahikoa dela abortua deliktu ez izateko, edo eta, are, sozial errespeta daitekeen kondukta izateko.

36 Orduan zergatik egin zen Penal Kodiguaren alda hori, lehen ere behar-egoerako kasuetan absolutzen bazen?

Oraingo abortu-legislazioaren promotore batzuek ez dute behin ere estali, honek lehenengo pausoa izan behar duela, gizarteak ez abortu probokatua edozein zirkunstantzitan legezkoa bakarrik kontsideratzeko, baina bai eta amen eskubide bezala ere, beren umeei bizia kentzeko. Aurrerago ikusiko dugu, espain-legislazioan, egiazko behar-egoerak ez ezen, bizitzan normal, oso gogorak badira ere, gertatu ohi diren zirkunstantziak hartzen direla kontuan abortua ez zigorkatzeko.

Bestalde, reforma egin zen bezala egin izan ez balitz, ezin sortu ahal izango ziren legez zentro batzuk abortuak egitera dedikatuak, mediku edo terapeuta lana bailitz egiteko, ez jaio gabeko umeak sistematiko erditik kentzeko. Egia hain disimulatu nahi da, abortu probokatuei estal-esaldi honez «interrupciones voluntarias del embarazo» «enbarazuaren nahitako etenak» edo eta lehen-izki hauez «I.V.E», «E.N.E» deitzen zaie, jakintza eta teknika arlo balitz bezala, eta ez, daitekeen -eta egiaz den- giza bizia kentzeko bide bezala.

37 Zer irizten diote medikuek abortu probokatua egiteari?

Mediku gehienak badaki giza izaki bati bizia bortxaz kentzea medizinarean aurka doan akzio bat dela. Mediku gehienak, bai Espainan bai mundu guzian, ez du inolaz ere abortu probokaturik egin nahi, bai daki abortu probokatuak gizon bati bizia bortxaz

kentzen diola, eta hori osoro Medizinak egin behar duenaren aurka doa.

38 Zer dio, abortu jakin batzuk ez daitezkeela zigorkatu dioen Espain-Kodigoko artikulak?

417 bis da artikulua hori, eta bere testuak honela dio: «1. Abortua, medikuak edo haren direktiopean, akreditaturiko osasun-zentro edo -etxe publiko edo pribatuan eta emakume enbarazatuak expreso baimen emanda egina, ez da zigortu ahal izango, ondorengo zirkunstantzi hauetakoren bat batera baldin badator: 1.^a Enbarazatuaren gorputz edo psike osasun arrisko handia saihesteko beharrezkoa bada, eta operazioa egin baino lehen, dagokion espezialdadeko medikuak, abortua egin behar duen edo dirigitu behar duenaz besteak emandako diktamenean, horrela agertzen bada.

Haurduna bizia galtzeko arrisko larrian aurkitzen bada, diktamen eta baimen expresua alde batera utzi ahal izango dira.

2.^a Enbarazua, 429 artikuloko bortxatzeko deliktuaren ondore baldin bada, baina abortua sabelaldiko lehen hamabi aste bete barruan egiten bada bakarrik eta bortxakeria salatu izan bazen.

3.^a Umekia gorputz edo psike akats haundiekin jaioko dela uste bada, baina abortua sabelaldiko lehen hogeita bi aste bete barruan egiten bada, eta, abortua egin aurreko diktamena, akreditaturiko osasun-zentro edo -etxe publiko edo pribatuko bi espezialistek, abortua egingo edo dirigituko duenaz besteak ematen badute.

2. Aurreko zenbakian aitatzen diren kasuetan, enbarazatuaren kondukta ez da zigortu ahal izango, abortua zentro edo etxe publiko edo pribatu akreditatuan egin ez bada ere, edo exigitutako mediku-diktamenak eman ez badira ere».

Beraz, lexislazio mixtua da, baldintz eta epeak jartzen dituena, hiru supostuetako lehenean baldintz-sistema bakarrik aitatzen badu ere».

39 Zer esan nahi du, «osasan-zentro edo -etxe publiko edo pribatuan medikuak egindako edo hark dirigitutako abortua ez dela zigortu ahal izango» esaldiak?

Expresio huez gauza bat baino gehiago esan nahi da: lehena, artikulo honetan deskriptutako konduktak ez duela ondore zigorrik, artikuloak adierazten dituen supostuak eta rekisituak betetzen badira. Baitere, legez ez daukala abortua medikuak egin beharrik; edozeinek egin dezakeela, horretarako titulorik batere exigitu gabe, medikuak bere direkziopean egin dela aitortzen badu behintzat. Eta zera agintzen da, abortua zigortu ahal ez izateko, baldintz tekniko jakin batzuek dituen etxe batean egin behar dela; baldintz horiek Dekretoz regulatuak daude eta pertsoneri eta tokiak eduki behar dituen instalazioei dagozkie.

40 Zer esan nahi du artikulo honen 1.en zirkunstantziak?

Zera esan nahi du, enbarazuagatik amaren bizitzak edo haren gorputz edo psike osasunak arrisko haundia izango duen ala ez erabakitzeko, mediku-zertifikua bakarrik beharko dela. Zirkunstantzi honetan oinarritutako abortuari «terapeut-abortu» deritzaio.

41 Zergatik deritzaio «terapeut-abortu»?

Hasieran horrela ama-semeen bizitzak elkarren aurka jartzen zirenean egindako abortuari deitzen zitzaion. Gaur deitura hori edozein gaitz edo gaitz-arriskuri ematen zaio. Azken zentzu honetan zera sugeritu nahi da, abortu bidez amaren gaitzen bat sendatzen dela, estrikto hitzegiten badugu, abortu probokatuak ezer sendatzen ez, ezer terapeutzen ez badu ere.

42 Enabarazuak zenbat astebetekoa izan behar du, zirkunstantzi honetan zigortu ahal ez izateko?

Ez dago eperik batere. Amak zigorrik batere gabe, bere enbarazuko edozein unetan abortu ahal izango du, mediku-zertifikuak haren bizitz edo osasun arriskoan oin hartzen badu.

43 Emakumearen bizitzak, enbarazuaren ondore, maiz jasan ohi al du arrisku haundirik?

Ez; oso noizean behin bakarrik gertatu ohi da. Medikujakintza azken aldi honetan asko aurreratu delako, gero eta nekezago jartzen dira elkarren aurka ama-emeen biziak. Gauzak alderantzia esatera eragiten digu: heriotz arrisku gehiago dago ama batentzat abortu probokatuaren ondore, haren enbarazuaren ondore baino.

44 Eta amaren gorputz-osasunari begira zer esan dezakegu?

Bai, egia, gerta ohi den bezalako edozein enbarazu, beste gabe, emakume enbarazatuak jasan behar duen zama berria da, eta, horrek zenbait trastorno kera sor ditzake eta egitan sortzen ditu; baina, gauza jakina da, trastorno hauetako bat ere ez dela abortua zigortu ahal ez izateko arrazoi hartzen, bestela ez bait litzateke legerik batere behar, esana dagoen bezala, disfuntzio horiek mediko guziz berezko trastornoak direlako.

Aldi batzuetan zera gerta daiteke, enbarazuak amak lehendik zeukan gaitza haundiago egiten duela, baina oso zail da neurtzen enbarazuak zenbat arrisku erantsi dion, eta, nolana ere, ondo zaindutako amak, sortutako eragozpenak neke haundi gabe gainditu ahal izango ditu, gaur bide haundiak bai daude helburu hori iristeko. Bestalde, ez da ahaztu behar, abortu egitea amaren osasuna gaiztotzeko bide izan daitekeela.

Azkenik, zera hartu behar da oso kontuan, ze proportzio gutxi dagoen aurkatzen diren baloreen artean, hau da, amaren osasun hobea edo txarragoa jartzen dela, bere semearen bizitz edo heriotzaren aurrean. Ez dago amaren osasun txarragoa saihesteko semearen heriotza zuzen esterik.

45 Eta psike-osasunari begira?

Nahi-ez-tako enbarazu denak, jakina, amari emozio barnea nahastu egiten dio, edozein disgusto seriok nahasten dion bezala.

Baina, hortik amaren psike-osasunari arrisku handia sortuko zaiola uste izatera tarte handia dago. Zigortu ezineko abortuak egiteko alegatzen diren motibibuetatik juzgatu beharko bagenu, konklusio hau atera beharko genuke, egitan enbarazuak sarritan sortzen diola amaren psike-osasunari «arrisko handia». Izan ere, Espainan legearen babesean egindako abortu gehienek arrazoi hori ekartzen bai dute. Madridenten abortu egiten duen etxe bateko ahotsdunak zera deklaratu du, «abortua aske egiten ari gara, legez at egon gabe, zera uste bai dugu, nahi-ez-tako enbarazu denak amaren psike osasunari arrisko handia ekartzen diola».

46 Asko direla dirudi, nahi-ez-tako enbarazu dena beste gabe emakumearentzat psike-gaitza handia dela uste dutenak.

Hau beste asko bezalako ustekeria besterik ez da, naitako edo nahi-ez-tako ezjakinean oinartzen dena, izan ere bizitzan une kera asko izaten baita, batzuk alaiak, besteak tristeak eta are beste batzuk saminak, eta horixe ez dute horiek kontuan edukitzen. Disgusto handia hartu, desilusino mingarraia jasan edo ze ondore ekarriko dituen ondo neurtu gabe egindakoaren ondokoak sufritu, gauza guzi horiek uneoro gertatzen dira bizi kera guzietan, eta ez horregatik esan dezake inork serio, egoera horretan dauden guziek psike-gaitza larria sufritzen dutenik. Batzuk bai psike-gaitza edukiko dute, baina ez da gehienbat hori gertatzen, bestela zera onartu beharko bait litzateke, lur gaineko gizon-emakume guztiak psike-gaitza handia sufritzen dutela, bizi direlako bakarrik. Zentzurik ez luke, bizitzak berekin zoritxar-gertakizun batzuk daramatzalako, bizitza bera psike-gaitz handia dela esateak.

Dena dela, nahi gabe enbarazatu aurkitzen den emakumeak garrantziko psike-alda sufritzen duela suposturik ere, zera eduki behar da kontuan, esperientziak hala irargitzen duela, nahigabeko enbarazatu asko, asko-asko ez esateko, semeari jaiotzen uzten bazaio, pozezko ama desiratu, eta oso desiratu,

bihurtzen dela. Esperientziak zera irargitzen du, gehienbat, nahi-ez-tako umekia, jaiotzean, haur maite-maite bihurtzen dela. Eta hori ez da gauza batere berezia, amak, izan ere, nahi-ez-tako enbarazua duenean, emozio-nahasia, bere sabelean nor daraman kontuan erortzen uzten ez diona, senti dezake, baina egoera hori semearen negarra entzun eta janaritzeko titiari heltzen diola ikusi bezain laister garbitzen da.

Alabaina, kasu batzutan ama batzuek bere semea, nolana ere jaioa, zapuztu egiten dute, beste aita eta ama batzuek ere, bere seme-alabak txikitan oso maite izan ondoren, haunditan gorroto dituzten bezala, dena dela horretarako duten arrazoi. Egoera horietan, legiazio zentzuzkoena zera izango litzatekeela dirudi, mehatxatuak aurkitzen direnen bizitza eta babesa zainduko lukeena, batez ere ezinduak eta errurik batere gabeak baldin badira (adoptatzeko, etxean hartzeko, edukatzeko etab... sistemak sortu bidez), eta ez haurraren edo ahaidearen erailtza legezko bezala onartuko lukeen legiazioa.

47 Medikuzertifikatutako arriskua baden ala ez, eta, baldin bada, haundia den ala ez egizatzeko modurik bai al dago?

Oso zaila da hori egiztatzeko. Psike-trastornuen estudioak, espezialista guzien iritzira, oraindik bide luzea egin beharra dauka. «Psike-osasunaz» general hitzegiten duenak, hain ilun eta ezgarbi egiten du, zientifiko ezertxo ez esan nahi dezake. Ez da irargitu orain arte, gogo-gaitz ezagun eta jakin bakar bat ere, abortu eginda beste gabe senda daitekeenik, horrefako irargipen bat praktikoa ezin egin baita, abortuak amaren psike-osasunari, semeari jaiotzen uzten badiu baino kalte gehiago egingo ez diola, irargitu ere ezin den bezala.

48 Zer esan nahi du bortxatzeko zirkunstantziak?

Zera esan nahi du, abortua zigortu ahal ez izateko, aldearez bortxakeria salatu egin behar dela, eta abortu, enbarazuaren

lehen hiru hilebete barruan, egin behar dela. Horregatik, abortu honi «abortu etikoa» deritzaio.

49 Zergatik ematen zaio «abortu etiko» izena?

Kasu horietan abortu probokatua etiko onar zitekeela usten zutenek emandako izena da. Gaur, expresio honekin, zera adierazi nahi da, hortxakeria den bezalako basakeri-aktuari erremeio bat ematen zaiola, baina egiaz, abortuak ez du ezer erremitzen, hortxakeriari ez baidago atzera eragiterik, eta semeak, bortxakeri-frutuak, ez du batere errurik. Bortxakeriagatik abortu egiteak ez du etikarekin zer ikusirik, aktu okerra beste aktu okerrarekin estaltzean, ez bai da etiko aktuatzen.

50 Kasu honetan zergatik jartzen da hiru hilabeteko epea?

Biologi edo mediku arrazoirik ez dago batere, bortxakeriagatik nahitako abortua, hiru hilabete baino lehen zigortu ahal ez izateko, eta, epe orren ondoren, zigortu ahal izateko. Zera bakarrik gertatzen da, semea ama-sabelean zenbat eta txikiagoa den abortu errezago egiten dela eta arrisko gutxiago ekartzen diola amari.

51 Maiz egiten al da legez abortu bortxakerian oinartutako arrazoian?

Ez, oso bakan gertatzen da, oso gutxitan ekartzen bai du bortxakeriak ondore enbarazorik. Gainera, kasu horietan Poliziak sartu behar du, abortu baino lehen salatzeko obligazioa bai dago, eta horrek segituan amaren «psike-osasunaren arrisko aundira» jo erazten du, mediku-zertifikua baizik ez bai du eskatzen, abortu egiteko eperik ez da behar eta Poliziari ez zaio sar-biderik ematen.

52 Zer esan nahi du umekiak deformazio aundiak edukitzeko arriskuaren zirkunstantziak?

Zera esan nahi du, abortua, umekiak deformazioak dituelako («eugenesi» edo «eugene» abortu ere deritzaiona), zigortu ahal ez izateko, bi baldintza hauek bete behar direla:

a) Bi mediku-zertifiko behar dira; zertifiko horiek abortua egingo duenak ez beste bi espezialistek eman behar dituzte, eta zertifikoek, ustez semeak izango dituen deformazio haundiak ekarri behar dituzte.

b) Abortua sabelaldiko lehen hogeita bi astebete barruan egin behar da, hau da, semea ama-sabel barruan bost hilabete eta erdi bizi arte.

53 Zergatik deritzaio «eugenesi-abortu»?

«Eugenesi» hitzak «jatorri oneko» esan nahi du. Joandako gizaldi azken aldetik aztertzen da eugenesia; espezie bizien, bai eta gizonen ere, herentzi-faktoreak nola hobetu daitezkeen aztertzen duen jakintza da; Estatu Batuetan asko hazi zen. Behin gizaldi honen barruan, Alemania nazin, aria arrazako gurasoen ume-jaiotzari eragin zitzaion, eta egiazko edo supositu genesi-akatsoko pertsonak antxutu bidez, haiei ume ekartzen galarazten saiatu ziren.

Abortu kera honi aplikatu zaio hitz ori, horrela zera iritsi nahi bai da, deformatutako edo akatsko umeak ez daitezela jaiotzen. Baina, izen hau ez da egokia, abortu kera honen bidez ez bai dira giza-espezieren herentzi-faktoreak hobetzen.

54 Zergatik erabaki da hogeita bi astebeteko sabelaldia abortu kera honentzat?

Hogeita bigarren astebete inguruan nabaritu bai daiteke, gaur ohi diren teknika bidez, semeak sortzetik deformazioen bat dakarren ala ez.

55 Ez al da hobe, bai beraren bai bere fameliaren sufrimentu haundiekin, bizitz urritua eraman behar duen umeari jaiotzen ez uztea?

Ez. Horrela pentsatzeak, zentzugabeko gauza pentsatzera garamatza, zirkunstantzi batzuetan giza izaki bat hiltzean hari

mesede egiten zaiola uste izatera. Heriotza, erreimeio bezala, ez giza onaren oinarrizko elementuen aurka bakarrik, baina guzien zentzu onaren ere aurka dago.

Herri buruek, gorputz edo gogo ezinduen kasuetan, ez bakarrik ez dute heriotzarik predikatu behar, baina haiei oso ardura berezia emateko legislazioa promotu behar dute, ez bai daiteke solidaritza hobeto adierazi, ezinduei osoro sozial integratzeko eta ahal duten bizi mailara iristen lagunduko dien legislazioa egin bidez baino. Eta ez da solidaritza hori okerrago adieraziko, baden eta bizi den akats haundiko giza izakiaren heriotza, jaio baino lehen ere, dekretatzen bada baino.

Baina, prinsipio-kuestio hauez gainera, esperientziak uneoro zera agertzen digu, akats haundiko pertsonak, espain-legislazioaren arauera batere zigorrik gabe jaio baino lehen hilko zituztenek, serbitzu haundiak eta are ikusgarriak egin eta egiten dizkiotela gizarteari. Eta psikiko ezinduei gagozkiela, milaka seme ezinduen esperientziak ere zera erakusten digu, sarritan haiek euren etxeetako sendikide zoriontsuak direla eta sendia elkartzeko eta elkar maitatzeko garrantzi haundiko faktoreak.

Azkenik zera esan behar da, espain-legislazioak, ezin zigortuko abortu kera honetan, daitekeen deformazioaren eta heriotz seguruaren artean, zoritxarreko desproporzioa jartzen duela.

56 Zirkunstantzi hauen behan maiz egiten al dira abortuak?

Ez, oso gutxitan, semea edo alaba ezinduak direla edo izan daitezkeela jakitean, lehen zirkunstantzira (amaren «psike osasunaren arrisku haundira») errazago jotzen da, bi mediku-zertifikoen lekuan bat besterik ez bai du eskatzen, eta abortua egiteko ez du eperik batere jartzen.

57 Penal Kodigoko artikulua honetan gainera zera esaten da, «indikazio» hauen behan abortutzen duen ama ez dela

zigortua izango, mediku-zertifikurik ez edo abortua «zentro akreditatuan» egiten ez bada ere. Zer esan nahi du esaldi horrek?

Agindu honekin, lege-exigentziak bete gabe, betetzen direla oker ustez, abortu egiteko baiezkua ematen duen ama, penal-erru guzitik libratu nahi dute. Kasu honetan, deliktua egin duten besteak bakarrik zigortuko dituzte.

58 Eta zer gertatzen da exigitutako mediku-zertifikoren batek, amaren bizitz edo osasunaren arriskuari edo daitekeen semearen deformazio haundiari, ez diola egiaz erantzuten irargitzen bada?

Hori irargituko balitz, horrela egindako abortua zigortu ahal izango litzateke, eta errudunak (egile, eragile, lankide eta estaltzaileak) zigortu egin beharko lituzkete. Baina, oso nekez gertatuko da bizitzan horrelako gauza, aldez aurreko denuntzia bidez juezari iker-baimena emateko, penal-auzia iriki beharko bait litzateke, eta bai amak bai senideak batez ere zera nahi dute, euren bizitzako zoritxar hori ahaztu; eta horrek abortutzen dirua irabazten duten mediku eta gainontzekoei laguntzen die. Hori dena, mediku-zertifikuan esaten dena egia den ala ez tekniko jakiten zeinen zaila den kontuan artu gabe, batez ere han ez diagnosiak, baina prebisio edo prognosiak jartzen badira.

59 Ugaritu al litezke espain-legislazioan abortua penal ez zigortzeko supostuak?

Jakina baietz, eta, hori gertatuko balitz, ez litzateke gauza berria izango, beste herri batzuetako legislazioan, sozio-ekonomi arazoiez egindako abortua, hau da, seme berriaren etorrera gurasoek eraman ezineko ekonomi edo sozial sakrifizio bat izango litzaiekeela kontsideraturik egindakoa, ezin zigortua dela kontsideratzen bai da. Horri «laugarren supostua» deritzaio, eta hori sartu nahi dute batzuek gure legislazioan, zera uste bai dute, Kodigoan aurkituko balitz, abortu probokatu askoren lege-

arrazoia egiagoa izango litzatekeela, orain amaren «psike-arrisku haundiaren» indikaziora jo behar bai dute.

60 Baina ez al da psike osasunaren arriskuaren supostua nahikoa, abortu probokatua, egitan, eskatu ala eta zigorrik gabe emateko, ikusi duguncz?

Teoriko horrela dela pentsa liteke, baina praktiko ez da gauza bera gertatzen, legislazio honek helburu bat baino gehiago bai du, hau da, abortua ez bakarrik penal-zigorrik gabe utzi, baina zeharka gizarteari zera erakutsi, abortu egitea gizartean aintzagarri izan daitekeela.

Horregatik, batzuek gainera zera uste dute, indikazio-sistemak, den zabala den arren, kuestio hau ez duela osoro resolutzen eta Espainan abortuaren lege-izaera aldatu egin nahi dute, eta, hala, deliktu izatetik, amek eurek sortutako semeak, artean ere jaio gabeak, luketen hiltzeko eskubidera igaro; hori, idea horren patroien iritzira, giza izakiak hiru edo lau hilebetez beherakoak, ere amaren sabelean batera zaindu gabe utziko litukeen epe-lege hutsa jarriko balitz lortu ahal izango litzateke. Legeak, norma hauen arauera, ez luke txiki horiekin zer ikusirik izango; amaren eskuetan geldituko lirateke osoro, hark haiekin egin nahiko lukeen guziraiko, bai eta hil, nahi badu ere, inori zergatik hil duen explikatatu behar gabe.

61 Legeak batzutan jaio gabeko semea zaindu gabe uzten badu, zer esan nahi du horrek, seme hori ez dela pertsona?

«Jaio gabea pertsona da, ez baita beste giza izaki molderik pertsona baizik»

Jaio gabea pertsona da, ez baita beste giza izaki molderik pertsona baizik. Alabaina, lege ordenamenduek batzutan fikzio batzuk jartzen dituzte pertsona nor den eta nor ez den erabakitzeko, baina fikzio horiek ez dute gauza aldatzen. «Pertsona» hitzak Legean batzutan gauzari dagokionaz beste zerbait esan nahi du. Hara enpresekin zer gertatzen den, «lege-pertsona» bai deritzaie, enpresa bezala sujeto eskubidedun eta obligaziodun direla adierazteko. Hona beste adibide bat: Espain

Legean, norbaiten berririk zenbait urtetan ez bada, hura hildakotzat jotzen da, baina lege-fikzio onek ez du esan nahi, agertu ez dena bizirik badago, ez dela, agertu ez delako, pertsona.

Espain Legean, jaio gabea pertsona dela kontsideratu behar da, Penal Kodigoak abortua «pertsonek aurkako deliktu» bezala regulatzen bai du, beste lege-efektutarako (Zibil Kodigoaren fikzio baten indarrez) jaio ondoren hogeita lau ordu arte, pertsona bezala hartzen ez bada ere.

62 Nondik, jaio ondorengo 24 ordu horiek, Espain Legeak giza izakia, zibil efektutarako, pertsona dela kontsideratzeko?

Gure Zibil Kodigoko prezeptu hau Erromako Legetik datorkigun arkaismo bat da, orduan jaio berri asko hiltzen bait zen.

Alabaina, gauzak hala exigitzen duelako, Zibil Kodigoak berak zera erabakitzen du, sortu eta artean jaio gabea, bizirik jaiotzera heltzen bada, bere aldeko efektu guzietarako (herentzia den kasuan, adibidez) jaiotzat eduki behar dela.

63 Hala ere, ez al luke Espainak, gehienbat abortua legetua daukaten bere inguruko herriek bezala egin behar?

Ez. Beste herriei biziaren eta giza aintzaren aldeko guzian imitatu behar zaie, baina ez giza progresuaren aurka doan eta hari ezegoki datorkion hartan.

64 Gure denborako herri aurretiko gehienek, gehiago edo gutxiago, abortua legetua baldin badaukate, ez al litzateke abortua legetua aktua bezala hartu behar?

Ez. Herriak, pertsonak bezala, gauza batzuetan aurreratu eta progresuzale izan daitezke, eta bestetan atzeratu eta reaktionario: Kristo aurreko V. mendeko Atenas, arten, filosofian, literaturan, organizazioan bere garaiko herri aurreratuena zen, baina horren

aurreratu eta guzti esklabuak zituzten euren artean. Gauza bera esan daiteke Renazimenduko Europari eta torturari buruz, joan den gizaldiko Estatu Unituek eta beltzen esklabitudez, edo gaurko Europaz eta abortu probokatua. Geure egunetan bertan ikusi dugu nola herri osoak hil dituzten, nazismo aldirian juduen aurka egin zen bezala, eta akzio txar hura arioen arraza garbitzeko aurrerapen bezala aurkeztu ziguten.

Horrelaxe, esklabuen gai horretan, Kristo aurreko V. gizaldiko Atenasen antzera egitea, progresu seinale izango ez litzatekeen bezala, ez litzateke ere on izango gaurko egunean, abortu legalitze gai horretan, gainontzeko Europako herrien antzera egingo bagenu.

IV

ESTADUAREN

ETIKA EXIGENTZIAK

65 Abortuaren kuestioa, ez al da emakumearen barne problema? Ze ikusirik dauka Estaduak horrekin?

Ez. Abortua ez da amaren barne problema bakarrik, ez eta aitarena bakarrik ere, haiek ez beste bat ikutzen bai du, hau da, sortutako eta oraindik jaio gabeko semea. Jakina abortu egiteak barne-problema sortuko dituela.

Herri buruek bizia eta giza aintza, hura bizi den denbora osoan zaintzen esku hartu behar dute, bakoitzaren zer-nolak kontuan eduki gabe, printzipio hau, kristau doktrina zabaldu denetik lege-ordenamendu guziek jasoa, batzuek gaur kuestioan jartzen badute ere. Abortu probokatua ez da gurasoen barneko arazoa bakarrik, baina zuzen gizon guziena berezko solidaritza ikutzen duena, eta gizon orok min hartu behar du abortu bat egiten denean.

Norbera bere buruaren jabe izate hori, gizonari begira errespetu egin behar da, eta horretxegatik hain zuzen ere exigitzen die

etikak Estaduei zaindu dezatela gizonen bizia osoro, eta sakon gutxietsiko lukete exigentzi hori, abortu probokatuaren aurrean, torturaren aurrean bezala, eskuak garbituko balituzte. Halaxe, ez du zentzurik batzuen argudioak, Estaduek tortura admetitu egin beharko luketela dionak, informazio edo konfesio bat lortzeko toturtzaileen interesak, informazioa ez emateko edo ez konfesatzeko torturatuen interesekin jotzen duenean. Estaduak ez dauka bere eskuak garbitzerik giza bizia bai fisiko bai moral osoro zaindu behar horretan, eta norbaitek bere kontzientziaren arauera torturatu egin behar duela uste badu, ez dezake inor horren aurka ez daitekeela jarri argudiatu. Abortuak, torturak bezala, guziok ikutzen gaitu, eta Estaduek zer ikusi beharra daukate.

66 Nola hau torturaren kasuan garbi ulertzen da, eta ez da abortuaren kasuan ulertzen?

Badago horretarako arrazoi bat baino gehiago, eta horien artean ez txikiena arkaismo hau, gure begien aurrean daukaguna besterik ez dugula denik egiten. Baina seme jaiogabea ba da, bizi da, ikusten ez badugu eta entzuten ez badiogu ere. Tortura erraz iruditu dezakegu bere anker eta izugarrian, baina ahaleginak egin behar dira abortu probokatuaren ankerra eta mingarria iruditzeke. Horregatik explikatzen dugu aurreko orrialdeetan, isilik eduki ez daitekeen eta eduki behar ez den gauza mingar-garri hori, labur eta ahalik exageratu gabeen; giza biziari bere balioa ez bai diote gure sentimentuek ematen, hark berez bai du balio hori.

Bestalde, abortu probokatua egiten uzten duten Estaduek, gauza isilpean edukitzeko aliatuak bilatzen ibili gabe aurkitzen dituzte, seme jaiogabeen bizitza zaintzeko obligaziorik haundiena dutenak, hain zuzen ere: ama eta abortua egiten duen medikua. Torturaren kasuan, aldiz, torturatuaren senideak, ez dira salatzen behin ere aspertuko, eta zer esanik ez torturatu bera zigortetik bizirik ateratzen bada. Horregatik askoz ere errazago ulertzen da

Estaduaren obligazioa torturatua babesteko, abortzera doazen haren bizia babesteko baino. Baina, horrek ez die Estaduei jaio gabeaganako duten etika-obligazioa batere kentzen.

67 Orduan, Estaduak abortu egiten dutenak zigortzera behartuak al daude?

Estaduak, aborturik egin ez dadin, bideak, bai eta lege bideak ere, jartzera behartuak daude, ez asesinatzeko, ez bortxatzeko eta ez ostutzeko ere behar diren bideak jartzera behartuak dauden bezala; eta gaurko lege-tekniken arauera, abortua penal deliktu dela tipotzen bada, hori izango litzateke giza biziaren aurkako atentatuaren haundiari dagokion lege-neurria.

Badaude beste lege bideak ere Estaduek abortu egitearen aurkako politika eramateko, (administrazio sankzioak, sariak, jaioari laguntzak, etab.) baina horien alboko izakera arina, ez litzateke abortuaren barne-kalte haundiari dagokiona izango, oinarri eta base onaren aurkako atentatua denez gero, lege-zigortik haundiena bait zaio zor, eta hori deliktu bezala epaitzen bada bakarrik lortzen da. Gauza bera esan daiteke gizona erailteaz eta bortxakeriaz, deliktu izan behar dutela; ez bait luke proportziorik gordeko, asesinua edo bortxatzailea multa edo antzeko batekin bakarrik mehatxatuko balute.

68 Honek zer esan nahi du, Estaduak bere legeetan moralak debekatzen duen guzia sankziotu behar duela?

Ez. Estaduak bere kompetentzi barruan sartzen diren pertsonen kondukta gaiztoak bakarrik, eta, debekatzen dena galerazteko, lege-normak tekniko bide egokiak badira bakarrik, sankziotu behar ditu, kondukta txar horiek ez bai dira pertsona barnean agortzen. Den hori, legisladoreari kasu bakoitzean noraino heldu daitekeen eta heldu behar duen jakiteko exigitu dakiókeen zentzu ona ahaztu gabe, batzutan egin gaiztoa, erauzi ezin delako eta haren debekuak oraindik gaitz haundiagoak ekarriko litukeelako, jasan egin behar dela admeti bai liteke.

69 Eta ez al da hori, hain zuzen ere, abortuan gertatzen, beti izango bai dira abortuak, eta, ezkutukoak badira, abortutzen duten emei arrisko haundiak ekar diezazkizkie.

Ez eta inola ere. Estatuak, bere eskuan dauzkan bide guzietan, giza bizia bezalako sozial ordenaren oinarri baloreak, zaindu egin behar ditu, eta ez ditzake behin ere, inolako zirkunstantzitan, balore horien aurkako oinarritzko eta behin betiko atentatuak (gizeraitzak, abortuak, bortxakeriak, torturak...) pertsekutu gabe utzi, inoiz ere ezin erauziko direla jakin arren, bestela gizarte organizatuak eta, are, herri aginteak izateko duten arrazoia ukatuko litzateke.

70 Egin gaiztoa batzutan eraman behar dela admcti badaiteke ere, horrek zer esan nahi du, zirkunstantzi batzutan, egin gaiztoa, ez gaiztotzat, baina ontzat eduki behar dela?

Ez. Gauza gaiztoa beti gaiztoa da, eraman egin behar bada ere. Ona ez da eramaten; desira egiten da, haren aizetik joan. iritsi egin nahi izaten da. Gaitza kendu ez daitekeengan. orduan gaitza eraman beharra dago, baina berez gaiztoa dena. abortua esate baterako, ez dago behin ere ontzat hartzerik.

71 Eta momentu jakin batean herri bateko gendeak abortua berez gaiztoa dela ikusten ez badu, horrek zer esan nahi du, Estatuak ez duela abortua sankziotu edo pertsekutu behar?

Ez; hori gertatuko balitz, gende talde hori oker egongo litzateke, beste gizaldietan esklabitudea edo tortura gaiztotzat ez zeuzkatenak oker zeuden bezala. Oker daudenei beren okerratik irtetzen laguntzeko eskubidea dago, eta, haiei beren okerraren arauera ez egitera eragiteko era bai, erremeiorik ez duten kalteak egin ez ditzaten.

Oinarritzko eta gure izaerari dagozkion baloreak, giza bizia eta haren aintza esate baterako, aurrekoak dira eta gehienaren

erabakiari lotugabeak eta haiek baino goragoak. Horregatik, Estaduak ez du, gauzen izaerari dagokion horretan, gehienaren iritzia azken arauzat hartu behar. Gauzak ez dira egiak edo gezurrak, ederrak edo itsusiak, onak edo gaiztoak, une jakin batean gehienak hala erabaki dezakeelako.

72 Abortu probokatuaren aurrean Estaduak zer egin behar du, hura deliktu bezala tipifikatu eta pertsekutu besterik ez?

Ez. Estadua pertsonen biziaren eta aintzaren alde egitera behartua dago, eta abortutzeko erabaki edo zirika horren azpian dauden sozial problemak soluzera egin behar du (ama izango denari lagundu, adopzioaren alde egin, biziari, eta gizonari dagokion biziari, on egingo dion herri-ohitura giroa sorötu...), eta goi amets hau eduki behar du aurrean, baiezko neurriak hobeak direnez gero, ez dadila deliktu-zigorrik eman behar izan.

73 Baina, gizartean aborturik den bitartean, ez al da hobe, kontrolatzeko, izkututik ateratzea?

Ez. Abortua legalitzeak ez dio abortuari bidea itxiko; aitzitik zabaldu egingo dio eta ugaltu egingo dira abortuak. Bestelako iritzia, oso zabaldua dagoen okerra da, mundu guziko estadistikek, salbuespenik gabe, gezurtatua. Eta haatik ugaltzen dira abortuak legalitzen badira, gehienbat herri-iritziak, zigortzen ez dena, ontzat hartzen duelako, eta gero eta axola gutxiago izaten duelako bakoitzak bere barnean abortutzeko erabakiagatik.

Penal legeak ez du helburutzat deliktua pertsekutu bakarrik, baina, elkarrekin ondo bizitzeko, gizartearen konzientzia oinarrizko baloreen gainean konfiguratu nahi du, eta, hala, herrikoei zigortua ez egitera eragin behar die. Horregatik, kondukta jakin bat despenaltzen denean, gero eta maizago egiten da, ontzat hartu arte, eta, horregatik, gendea batere

kezkarrik gabe egitera jartzen da, legal dena ona dela eta ezlegal dena txarra dela oker ustez.

74 Honek zer esan nahi du, Estatuak bere legislatzeko eta represitzeko indarra moral jakin baten, konkretu moral katolikoaren alde, jarri behar duela?

Ez. Baina, badago giza-aintzaren defentsa inguruan -han sartzen da sortutako eta oraindik jaiogabearen bizitzeko eskubidea ere- badago han artikulatzen den gutxiengo bat, inola ere alde batera utz ez daitekeena, bestela, gizarteak eta Estatuak izateko arrazoirik izango ez luketelako. Gutxien hori ez da Eleiz Katolikoaren ondare bakarrik, gizadi osoaren ondare baizik.

Legisladoreak ez du nor den gizon ala nor ez den gizon erabakitze eskubiderik, eta horren arauera hari lege babesa eskaintzeko ala ez eskaintzeko. Hau biziak ematen duen dato bat da, gizonek aintzat eduki behar dutena, ezin aldatu bai dute. Horregatik da prinzipio horren aurka doan lege-norma dena erroz okerra, lege-formalismo guziekin baiesten badute ere; halaxe ere, erroz oker oinarritzen da, edozein giza izakiren bizitzeko eskubidea, haren osasun, gorputz edo buru iaioan edo giza eta bizi izatez beste zirkunstantziren batean. Doktrina hau gizadiak XX. gizaldiko totalitarismuak jasan ondoren ikasi du (beti egoki aplikatzen ez badu ere): lehenbizi «parasito alper» bezala epaitutako alemanen erailtza, eta, geroago, mundu gerra bitartean, 1940. urte inguruan, Alemania nazi, juduen erailtza babesten zuten arauak berez gaiztoak eta okerrak ziren, indardun Estatuaren instituzioek erabaki bazituzten ere. Horixe bera gertatzen da abortu probokanua legezko egin nahi duten gaurko legeekin.

Kontsiderazio hauek, behin eta berriz esango dugu, ez ditu doktrina eta moral katolikoak bakarrik afirmatzen, baina giza izaera maite duten gizon guzien oinarritzko zentzu onak defenditzen ditu. Gaur abortu probokatuaren aurka ekiten

duenak, garai batean esklabituedearen aurka ekiten zuenak bezala, ez du fanatiko aktuatzen, ez dago ere erligio-konbiktzio katoliko edo ezkatolikoekin nahitaez lotua, baina bizitzeko eskubidea eta gizonaren aintza sinisten duen guziak egin behar duen lana da hori.

75 Abortutzen duten pertsonak erabat zapuztu egin behar al ditugu?

Ez eta inola ere. Egiari gogor eutsi behar zaio, baina pertsonekin bihotz-zabal izan behar da; jakina, oker bat egin duten pertsonekin bizitzeak, haiei laguntzeak eta haiekin bihotz zabal izateak, ez duela oker egin dutela ukatzen dugunik esan nahi. Krimina krimina da, kriminalari laguntzen eta aterpe bat eskaintzen bazaio ere, eta kulpa eta erantzunbehar gabe ere utz badakioke ere, horretarako arrazoirik izanez gero.

V

**KATOLIKOAK
ABORTUAREN AURREAN**

76 Zer ulertzen du Eleizak abortuaz?

Eleiz Katolikuak abortuaz, umekia sortu denez geroztixek, haren heriotz probokatua ulertzen du, dena dela egiten den modua eta sabelaldi unca. Horrela deklaratu zuen 1988.go maiatzeko 23an Kanon Legeko Kodigoaren Interpretazio Kautorako Komisioak.

77 Abortu probokatuaren kuestioa, jakintza, politika edo sozial problema besterik ez al da?

Ziur, ez. Kuestio hau, dudarik gabe, jakintza, politika eta sozial kuestio handia da. Baina, bai eta moral problema serioa ere edozeinentzat, berdin sinisdun edo sinisgabearentzat ere, eta neurri haundian gainera.

78 Bai al dugu katolikuok abortuaren kuestioan, katoliko edo sinisdun ez denak duenaz areago beste obligaziorik?

Gizon eta emakume denak, gauzen egia ukatu nahi ez badu eta gizonaren bizia eta aintza defenditzen baditu, bere eskuan dagoen edozein legezko bidez, zera iristen saiatu behar du, ez dezatela legeek errugabe edo babesgaberik bortxaz hiltzen utzi. Baina, kristauok, eta katolikuak horietakoak gara, badakigu giza pertsonaren aintzak bere oinarri sakonena Jainkoaren seme eta Jesukristoren -gu guzioen eta gu bakoitzaren maitasunagatik gizon sortuaren- anai izatean daukala.

Horregatik, katolikuok, gure sinismena bizi badugu, abortuaren aktu izugarri hori, bere dimentsio osoan, giza aintza sakratu horren aurkako atentatu bezala baloratzen dugu. Beraz, gure fedeari esker, areagoko eginberraz baino hobeto, giza pertsonak ze balio duen sakonago eta osoagoa ulertzen dela esan beharko litzateke, gure biziaren aldeko konduktaren oinarri bezala, bai dakigu Jainkoa ahaztutzea gizonaren aintza ahaztutzero daraman bide labaina dela.

79 Katoliko bezala, abortu egiten duen edo bere gorputzean abortutzeko baimena ematen duen pertsonak, ze erru egiten du?

Abortu egiteko baimena ematen eta nahi duelako egiten duenak, bere gorputzean egitea onartzen edo hura egiteko beharrezko kooperazioa ematen duenak, moral-kulparen errua du eta kanon-pena merezi du, hau da, bekatu eta deliktu egiten du.

80 Moral kulpa hori zertan datza?

Moral kulpa, giza biziari zor zaion begirune sakratuaren aurkako bekatu astuna da. Bosgarren Aginduak inor ez hiltzeko agintzen du. Oso bekatu astuna da, hila errugabea eta bere burua defendi ez dezakeena baita, eta haren bizia zaindu hehar dutenek kentzen diote, hain zuzen ere, bizia.

Gainera, hau eduki behar da kontuan, haur abortua Bataio Sakramenturik gabe gelditzen dela.

81 Zer da kanon-pena?

Kanon-pena Eleizak kondukta berezi nabarmen batzuei jartzen dien sankzioa da, Kanon Legeko Kodigoan erabakia eta katoliko guzientzat indar dagoena.

82 Abortuan eskuartzen duena ze kanon-penan erortzen da?

Abortuan eskuartzen duenak Eleizak horren zorrotz zigortzen duela baldin badaki, hura exkomulgatua gelditzen da. 1.398 Kanoneak honela dio: «Abortuan eskuartzen duena, abortu egiten bada, *Latae sententiae* exkomunioan erortzen da».

Bestalde, 1.041 Kanoneak zera erabakitzen du, abortuan eskuartzen duena, bai eta egite aldera kooperatu duen guziaz ere, abortu egiten bada, regular-ezan erortzen dela, eta hori ordena sakratuak hartzeko betiko eragozpen da.

83 Zer esan nahi du exkomunioan erori?

Zera esan nahi du, katoliko batek ez daukala sakramentu hartzerik pena hori kendu arte: ez konfesa daiteke balido, ez jaunartzera aldera daiteke, ez eleizan ezkondu. Exkomulgatuak ere ez dezake eleiz organizazioan kargurik fungi.

84 Zer esan nahi du exkomunioa *Latae sententiae* dela?

Expresio honekin zera esan nahi da, pena horretan erortzen dena beste gabe exkomulgatua gelditzen dela, ez daukala eleizburuk expreso bere kasu konkreturako ezer deklaratu beharrik.

85 «Abortutzen baldin bada», esaldiak esanahi berezirik bai al du?

Bai. Zera esan nahi du, exkomunio penan erortzeko, abortuak bere azkenera heldu behar duela, hau da, semeak abortuaren

ondore hil egin behar du. Edozein gorabeheragatik abortua bere azkenera helduko ez balitz, hau da, kontsumatuko ez balitz, ez da exkomunio penarik sortuko, bekatua bai baino.

86 Abortu egiten denean, nor erortzen dira exkomunio penan?

Exkomunio pena sortzeko baldintzak betetzen badira, orduan, bere oldez abortutzen duen emakumeaz gainera, abortutzeko beharrezko laguntza eman duten guztiak exkomulgatuak gelditzen dira: egiten dutenak, laguntzen dutenak -laguntza hori gabe ezin egingo zenean- etab.

87 Zergatik zigortzen dute abortua exkomunio bezalako kanon-pena haundiarekin?

Arau hau haatik jartzen dute, semearen bizia -ez katekesi eta kontzientzia ondo formatu bidez bakarrik, baina exkomunio bidez ere- sortze unetxetik babesteko. Ohartzen baita Eleiza, semeen bizi ahula, ama sabelean, hurrengoan -gurasoen, medikuen etab- konduktarekin lotua dagoela, eta hurrengo horiek dutela gainera bizi hori zuzenen eta berezien babesteko obligazioa. Gero, umea jaio denean, gainera nolabait ere gizarteak berak zainduko du.

«Eleizak beti abortu probokatua moral aldetik krimenik gaiztoena dela uste izan du beti»

Eleizak beti zera ulertu du, abortu probokatua moral aldetik krimenik gaiztoena dela. II Vaticano Kontzilioak hau dio gai honi buruz: «Jainkoak, biziaren Jaunak, bizia babesteko misio haundia gizonen eskuetan utzi du, eta misio hori giza aintzari dagokion moduan burutu behar da. Horregatik, sortutako bizia oso arduratsu zaindu behar da; abortua eta ume erailza krimen nardagarriak dira». («Gaudium et Spes» Const.).

88 Baina, azkeneko urte hauetan abortua gero eta Estatu gehiagok permititzen duenez gero, ez al zuen Eleizak bere onginahia agertuko abortutzen duten katolikuentzat zigorra arindu izan balu?

1983an burututako Kanon Legearen Kodigoaren azken rebisio sakonean, abortua, jakinen gainean daudela egiten dutenei erortzen zaaien exkomunio pena, Eleizak aldatu ahal zezakeen, baina haatik ez zuen aldatu, azken aldi honetan mundu guzian gendeak (bai eta sinesdun askok era) bere kondukta krimen honen aurrean lasaitu -eta ez gutxi- egin duelako. Eta lasaikeria haundiago honek, gendearen kontzientzi gainean ziur presio egiten duelako, kaso batzuetan deliktuaren haundia gutxitu badezake ere, zigorra arintzeak, zera adieraziko zuen dudarik gabe, gaur Eleizak abortu probokatua lehen baino bekatu arinago dela ulertzen duela, nabari gauza horrela izan gabe.

Eleiza Ama eta Maisu da; Ama den aldetik nekez haserretzen da eta erraz barkatzen du, baina Maisu den aldetik, ez dezake Jainkoagandik hartutako doktrina indar gabe utzi, eta ez dezake gaizki dagoena ondo dagoela esan, ez dezaioke ere inori Eleizak horrela aktuatzen duela pentsatzeko biderik eman.

89 Abortutzeko baimena ematen edo kooperatzen duen norbait exkomunioan ez eror al liteke?

Bai. Kanon Legean bekatu astunik ez bada, delikturik ez denez gero, zirkunstantzi batzuetan ez dira zigor honetan erortzen, osoro erruduna exigitzen bai du. Hala, esate baterako, abortu akzio horrek exkomunioa merezi zuela ez zekiena; nahitako abortua bekatu astuna dela ez dakiena; aurka ezin hala abortuan eskuartzera behartu dutena edo bildur haundiagatik eskuartu duena; adin gutxikoa...; oroar, osoro ohartu gabe eta osoro nahi gabe aktuatu duena, ez da exkomulgatua gelditzen.

90 Medikua (edo anestesista edo gaisozaina) horrelako akzio bat egiteko gertu ez dagoelako, bidaliko balute eta bai bera bai bere sendia beharrean aurkituko balira, koopera al lezake?

Behin ere ez da zilegi jainko legearen aurkako aktu bat egiteko baikor kooperatzea, Haren esana gizonena baino

lehenago bete behar baita. Egoera horretan aurkitzen den katolikua, bere burua kontzientzi objektzioko eskubidean babestera astun behartua dago, kondukta horrek ondore txarrak ekar baliezaizkio ere.

Sendatzeko profesioako kristauak zera eduki behar du aurrean gainera, gendeak sinesdun dela baldin badaki, eskandalua sor lezakela abortu egiten kooperatzen badu.

Profesional honen senideak ere kristauak baldin badira, bai gizon bai moral, lagundu egin behar diote nekeak eramaten, haren erabakiak sendotu egin behar dituzte eta haren alde jarri behar dute hatsekabe ordu horietan. Eta profesional haren lagun eta kideak kristauak baldin badira eta euren fedea egiaz bizi nahi badute, haiengana ere hedatzen da erantzunbehar hau, gainera bai eta profesional hori bizi den katoliko batzar-kideengana ere.

91 Eta abortuak sarri egiten diren ospitalean lan egiten duten gainontzeko pertsonak zer egin behar dute?

Pertsona horiek bere eskuan dauden legezko bide guztiak jarri behar dituzte abortuei bidea eragozteko. Dena dela, akzio horietarako beren laguntza ukatu egin behar dute.

92 Espainan eduki al daiteke aktitude hori?

Bai. Mediku eta gaisotegiko gainontzeko langileei, katoliko eta sinesdun ez badira ere, gai honetan, euren dagozkien profesio-organizazioek beren babesa eskaintzen diete, euren konbikzioen aurka aktua ez dezaten. Konstituzio-Tribunalak ekspreso esan du (1985.go Apirilaren 11ko Epaian) kontzientzi objezioko eskubidea Konstituzioak babesten duela eta, horregatik, epaile eta tribunalengandik iritsi daitekeela eskubide horri dagokion babesa.

«Konstituzio tribunalak zera esan du, kontzientzi objezioko eskubidea Konstituzioak babesten duela»

93 Zer dio horri buruz Espainako Mediku Etika eta Deontologia Kodigoak?

Bere 25. artikuluan hau dio, «ez du deontologiko egiten giza biziak balio ez duen aldi bat badagoela admititzen duenak. Horregatik, medikuak hura hasieratik errespetatu egin behar du». Eta bere 27. artikuluan beste hau: «Medikuak, bere etika edo jakintza konbikzioengatik abortuan edo giza reprodukzioen kuestiotan edo organo aldatzetan eskuartu nahi ez badu, Deontologiaren arauera egiten du».

94 Eta Espainako gaisotegien Deontologia Kodigoak zer dio?

Bere 14. artikuluan honela dio: «Giza izaki denak bizitzeko, bere burua seguru ikusteko eta bere osasuna zaintzeko eskubidea du». Eta 16. artikuluan zera erasten du: «Gaisozainak bere profesio-konduktan zera edukiko du aurrean, bizia giza izakiaren oinarrizko eskubidea dela eta horregatik hari kalte egitera edo bizia destruktuzera doazen akzio guziak saihestu egin behar ditu». Eta 22. artikuluan zera baiesten du: «Gaisozainak, bere profesioa betetzean, kontzientzi objektuak eskubidea du, kaso konkretu bakoitzean behar bezala ekspresio ageri behar dena. General Kontseiluak eta Kolegioek, gaisozainek eskubide hau, diskriminazio edo kalterik sufritu gabe egerazteko zainduko dute».

Baina, horrela izan ez balitz ere, mediku eta gaisozain katolikuek moral astun behartuak daude, abortu probokatuak egiteko beren buruak ez aurkeztera, diren kaltegarriak direla bai berentzat bai beren sendientzat kondukta horrek ekarriko lituzkeen ondoreak.

95 Abortuaz doktrina katolikua ez al da doktrina gogorra, oso gutxi bete ahal izango duena?

La hitz horietxekin erantzun zioten Jesusi bere garaikoek haren hitzaldia entzundakoan. Eta Jesusek berak esan zigun Zeruetako Erreinura iristeko bide estuari jarraitu behar zaiola. Kristoren atzetik bere Eleizan joatea ez da gauza erraza, baina Jainkoaren Grazia lagun bidea berdindu egiten da eta era-

gozpenak, oso haundiak badirudite ere, gainditu. Baitere, hala esan zigun Jesusek, konfiantza osoarekin harengana joateko eta hark arinduko ginduela gure nekeetatik.

Abortuaz doktrina katolikua ez dute eleizburuek beraiek nahi dutelako sortu, baina Jainkoak nahi izandako gauzen izaeran sakon-sakon oinarritua dago, eta Berak jakinerazitako Legean adierazten da, eta Eleizak doktrina hori zabaltzeko misioa du. Baina, Eleizak bere eginbeharra betetzen du ere, kristauak bere fedea hobeto sendotu ahal izateko eta euren kristau bizia gartsuago bizitzeko leku izatean.

96 Nola kendu liteke exkomunioa, abortu kontsumatuan kooperatu ondoren.

Katoliko bat egoera honetan aurkitzen bada, Gotzaiagana edo honek delegatutako apaizagana joan behar du. Praxian, edozein apaizagana joan besterik ez dauka eta hark esango dio zer egin behar duen.

97 Katolikoek, abortu probokatuan ez kooperatzeko obligazio astunaz gainera, bai al dute gai honetan beste obligaziorik?

Katoliko guziori bizitz on-onera deitzen digute, hau da, santutasunera, eta lur gainean Jainkoaren Erreinua zabaltzen aktibo kooperatzera eta Berri Ona munduko bazterrik urrutienara ere eramatera. Zibilizatu dela dioen gizarteko erantzun behardun kide denak bizia eta giza aintza zaindu egin behar baditu, katolikuok arrazoi askogatik eginbehar hori geure egin behar dugu.

98 Nola egin liteke hori abortuaren kasuan?

Gizartean bizirako eskubidea aintzat edukiko bada, guziek eguneroko lanean ahalegin horretan saiatu beharko dute, izan ere guziek, euren konduktaren ejenpluarekin, hitzekin, idatziekin, iritziekin, botuekin, beren seme-alaben edukazioarekin etab.,

zer pentsatzen den, nola bizi den eta zer legislatzen den horri eragin egiten bai diote.

Benetan, politikoek, edukadoreek eta sozial komunika bideen erantzuleek funtzio haundia betetzen dute kuestio honetan, haien hitz eta akzioek influjo handia bai dute gizartean; baina haiek, gizarteari eragiten dioten bitartean, bai eta gizarteak ere eragin egiten die beraiei.

99 Zer egin dezake gain honetan influhitzeko kristau arruntak, ohilako herriko semeak, ez telebisuan ateratzen, ez katedratik edo herri-tribunatik hitzegiten duenak?

Bizia sendotzeko bakoitzak egin dezakeena eta egin behar duena zera da, bere aintza zein den dakiela bizi. Bizia orduan bakarrik sendotuko dugu, geurea bere haundi osoan nabaritzen badugu eta gure kondukta gure konbikzioarekin batera baldin badator. Jesusek aurkitzen zuen pertsona, zena zela, serio hartzen zuen, eta ejenplu horrek horretara eragin behar digu; hala, bizian gurekin egokitzen diren guziek, aintzat hartzen ditugula, nabaritu behar dute eta inor ez bezalako pertsonak diren bezala estimatzen ditugula. Gure eguneroko bizitzan pertsona bizi bakoitza horrela aintzat hartzeak, jakina, giza izaki guziak eta bakoitza, bai eta sortu eta jaiogabeak ere, estimaraziko dizkigu. Baina, akintude general honen ondoan, konkretu biziaren alde berezi gauza asko egin ditzakegu:

- Legislatore eta herri buruen alde general Jaunari otoitz egin, haur sortu eta jaiogabeak gure gizarte kide errugabe eta babesgabeenak direla uler dezaten, eta II Juan Pablo Aitasantuak behin eta berriz esan duen bezala, ez dagoela sekula errugabearen heriotza legetzerik gogora dezaten.
- Mina eta sufrimentuaren moral balioa ez gutxietsi, hori onartzen ez delako zuzentzi nahi bai dira ustez horien iturriak garbitzeko ahaleginak; horregatik zuzentzi nahi dira ere, zaharrak eta alperreko gaisoak aurretik kentzeko saioak ere, edo karga diren

ezinduak edo bizitza nahastu egiten duten edo sendiaren bizimodu ona gutxitu dezaketen seme herriak bizitzatik garbitzeko akzioak.

- Ama izan direlako, egoera zailean aurkitzen direnei harrera ona egin eta diruarekin ere lagundu.
- Sendira datorren seme gaiso edo ezindu berria, den gogorra dela ere, pozez hartu, Jainkoaren onespena bezala. Zentzu honetan kristau guraso askoren kondukta eredutzat eduki liteke.
- Giza bizia defenditzen duten idatzi publikoen edo audiobisu programen alde jarri, baino giza bizia atakutzen dutenen aurka.
- Biziaren aurrean eta batikbat abortu probokatuaren aurrean programa hobea eskaintzen duten gizataldeei eman zure botua.
- Ingurukoei, maitekiro baina argi eta garbi, seme jaio gabearen kuestioa eta haren bizitzeko eskubidearen defentsak ze garrantzi handia duen jakinerazi.
- Medikuek, eta batez ere ginekologuek eta beste sendalariak, amak ekografian bere begiez bere semea sabel barruan mugitzen, igeri, behatza txupatzen ikus dezan, teknika bideak erabili. Zera esan da, ama sabela kristal gardenezkoa balitz, askok abortu probokatuaren kuestioa bestela ikusiko lukeela.

Eredu batzuk besterik ez ditugu jarri, baina hala ere nahikoak dira kristauak problema guziz larri honen aurrean zenbat gauza egin dezakeen ikusteko.

100 Bidez pentsa ote dezakegu egunen batcan giza bizia eta aintza, sortzetik hil arte errespetatuko direla?

Kuestio honi ez dakioke bai edo ez garbi erantzun, baina helburu horretara zuzendu behar dira mundu zuzenagoa iritsi nahi duten guzaien ahaleginak. Giza biziari, batez ere errugabeen

biziari, egindako erasoak beti historian ondore izugarriak ekarri ditu. Badakigu kristauok, pertsonak eta gizarteak Jesukristo onartu duenean, aktu horrek bizia beste edozein kulturan ez bezala sendotu duela. Horregatik ahalegindu behar dugu Kristo gizartera ekartzea, gizonak ezagutuko bai du bere haundia eta argi berrian bizi ahal izango du bere aintza. Jesus, eta hura bere sabelean sortu zuen Ama Maria lagun, eta geure biziaren ejempluarekin, hobe lan egin ahal izango da amets goi honen alde.

(F. Olariaga j'l'ak
itzuli du)



**ESTUDIO
FOTOGRAFICO**

ARGALKARI

*Ezkontzak - Argazki gaiak saldu - Argazki-aldaketak
 Lauki-ertz ipinketa - VIDEO - Plastifikatzeak
 Fotokopiak (Txikitzeak)*



San Miguel kalean, 14 Urrut: 673 0509 48340 Amorebieta	Trañabarren, 13 Bloque 1-4 Urrut: 681 1009 48220 Matiena (Abadiano)
---	--

JUAN MANUEL SASUATEGI
AVISA: 444 3500 - Abonado 868